

ETORKIZUNA ERAIKIZ-MISIOAK 2024

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu du Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan, elikadura jasangarriaren eta mugikortasun berriaren misioetara bideratutako proiektu berritzaileetarako dirulaguntzen deialdia.

Erakunde onuradunen artean unibertsitateak daude. Eskabideak taldean aurkeztu beharko dira. Gutxienez bi erakundek osatu beharko dituzte taldeak.

Horretarako, eskaera bat taldean aurkeztutzat jo ahal izateko, eskaera osatzen duen erakunde bakoitzaren gutxienerako partaidetza kostu hautagarriaren % 20koa izan behar da.

Unibertsitateen kasuan, ikerketa-talde bakoitzak gehienez bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenentzat, 2024ko ekainaren 17an, 16:00etan, deialdiaren aurkezpena egingo da Gipuzkoako Foru Aldundiko Etorkizuna Eraikiz Gunean (Gipuzkoa plaza z/g, 20004 Donostia). Teams bidez ere jarraitu ahal izango da telematikoki.

Informazio gehiago, [Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean](#).

Ikertzaile nagusiaren betekizunak:

Funtzionario- edo kontratu-lotura UPV/EHUrekin, eskabidea aurkezten denetik eta proiektua gauzatzen den bitartean (2025eko irailaren 15era arte).

Ikerketa-taldeko kideen betekizunak:

Eskaera aurkezten den unean UPV/EHUrekin funtzionario- edo kontratu-lotura izatea.

GARRANTZITSUA: Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko beren jarduerari berez dagozkion langileen gastuak.

UPV/EHUko taldeek aurkeztutako eskaerak proiektu bakoitzaren zentroaren aurrekontu osoaren zeharkako kostuen % 20 jaso beharko dute..

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Eskabideak aurkezteko epea **2024ko uztailaren 5ean amaituko da, 12:00etan.**

Barne Tramitazioa UPV/EHUn:

Ikertzaile nagusiek **2024ko ekainaren 18a** baino lehen jakinarazi beharko dute deialdi honetara eskaera bat aurkezteko asmoa, posta elektronikoko bidez, convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus helbidera zuzenduta, eta **2024ko ekainaren 24a** baino lehen bidali beharko dute eskatutako dokumentazio guztia **12:00ak** baino lehen, epe barruan berrikusi eta aurkezteko.

Egiaztatuko da ikertaldeak osatzen dituzten kideak UPV/EHUren barne-araudia betetzen dutela, unibertsitatearekin funtzionario- edo kontratu-lotura dutenekin.

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, eskabideak ez du legezko ordezkariaren balidazioa lortuko.